

## Bilera irekia Udarregiko familientzat

Ekainaren 22an Iruñean ospatuko den Ikastolen VII. biltzarra dela-eta, hausnarketa-prozesuan gara Euskal Herri osoko ikastoletan.

Horrela, Ikastola guztietan, lekuko komunitatearekin bilera irekiak egiten ari gara hausnarketa prozesu horretan nahi duenak bere ekarpena egiteko. Hiru txosten prestatu dira lanketa horretarako: [Nondik gatoz](#), [Non gaude](#) eta [Nora goaz](#). Udarregi ikastolan, saio ireki bat egingo da, **apirilaren 17an, asteazkena, 17:00etan** eraikin gorrian.

Ordu eta erdiko saioa izango da, **17:00etatik 18:30era**. Lehen bi txostenak aurrez irakurrita ekarri beharko lirateke testuinguratzeko eta hirugarren txostenaren lanketa, hau da, Nora goaz txostenarena, saioan bertan egingo genuke gero ekarpenak egiteko. Saioa egoki antola dezagun, eman ezazu izena ondoko [galdetegian](#).



## Udaberriko oporrak

**Gaur**, Haur Eskolako haurren beren ohiko ordutegian eta HH (3-6), LH eta DBHko ikasleek eguerdiko **12:30ean, udaberriko oporrak** hasiko dituzte eta **apirilaren 8ra arte** iraungo dute.



## Artezkaritza-kontseiluaren bilera-data

**Apirilaren 9an** izango da Artezkaritza-Kontseiluaren hurrengo bilera. Bertan aipatzeko gairen bat izanez gero, [artezkaritza@udarregi.eus](mailto:artezkaritza@udarregi.eus) helbidera bidaliz jakinarazi dezakezue.



## Jangela-zerbitzua

Hona hemen apirileko menuak:

- 3 - 16 urte. [Menu arrunta](#)
- 3 - 16 urte. [Intolerantziadun menuak](#)



## Udako aisialdi-eskaintza

Aurten ere Zirimolak, Ikastolen Elkarteko aisialdi taldeak, prestatu du [udako aisialdi-eskaintza](#). Euskal Herriko ertz guztietako haurrek uda Zirimolarekin batera gozatzeko aukera eskaintzen da.

Ikastolan bertan eskaintzen diren udalekuak ez dira antolatu Udarrekin. **Izen-ematea maiatzaren 14ra arte** dago irekia. [Informazio gehiago...](#)



# HAUR-HEZKUNTZA

## Guraso-bilerak 0-3 urte

Bilera pedagogikoak antolatu dira eta datak honakoak izango dira:

0-1 urte: apirilak 16, 17:00ean

1-2 urte: apirilak 16, 17:30ean

2-3 urte: apirilak 17, 17:30ean

Ez da zaintza zerbitzurik egongo.



# LEHEN HEZKUNTZA

## Irteera-kobrantza LH3

**Datorren asteazkenean, martxoak 27**, kurtso amaierako irteeraren kobrantza egingo da. Kostua **30,00 €** da.



## LH6. Mailako familiei oharra

Datorren ikasturtean DBH1. Mailan eskainiko diren hautazko irakasgaien azalpena emateko bilera bat antolatu da **apirilaren 10erako, 17:00etan**, DBH-ko eraikin gorrian.



# DBH

## Irteera-kobrantza DBH1

**Datorren asteazkenean, martxoak 27**, Arditurrira egindako irteeraren kobrantza egingo da. Kostua **9,60 €** da eta honela banatzen da:

- o Autobusa: 6,20 €
- o Arditurrira sarrera: 3,40 €



## DBH 4ko familiei oharra

Jakinarazten dugu 2023/24 ikasturterako Batxilergora sartzeko aurre-matrikula-epea **apirilaren 8tik 19ra** izango dela.

